
JULIO SANZ

GURE LENDAKARI JAUNARI

(Oarra: Idazlantxo labur au Iruña'ko "Diario de Navarra'n izan da argitaratua, Otsail onen 9'an. Orregaitik dago Naparroa'ko eskeraz idatzia. Xabier'ko Frantzisko'k esango zuan lez, "en mi bizkaino de mi Navarra").

* * *

Lendakari batekin erabili bearra den begirunez erantzun nai nioke, On Julio, zuk joandako abenduaren 3'an Elizondo'n esan zenuenari.

Ez zitzaizun mintzaldi ura txukunegia gertatu. Biotako bat: edo oso baldarki —¿bai?— edo asmo oso gaiztoz —¿bai ote?— izen bait zen aurkeztua an bota ziguzun erronka.

"Euskera" eta "indar geiagoko beste izkuntzak" aipatzerakoan au esan bait zenuen: Euskera erakusten geiegi saiatzea beste izkuntza indartsuago aien aurka joan ditekela; eta, orren ondorioa, "Naparroa'ko jendeen ortarako aal mena murriztea", "el empobrecimiento de las capacidades de aptitud de los navarros" izango dela. Ots, Pellokoko nere adiskideak esango luken bezela, "naparrok tontoago biurtzea".

Ez dakit, On Julio, ori den esan nai izen zenuena. Nik beintzat ez dut uste zure asmoa ori izen zenik. Baña ori izen da zure esaldi ura entzun edo irakurri duten guztiek —eta nik neronek aurreneko unean— ulertu duguna.

Nik ordea ezin pentsa dezaket euskerari gorroto diozunik. Naparra bait zera. Ta napar batek "naparren izkuntzari" gorroto izetea ontzat artu ez ditekeen gauza bait da. Ta, On Julio, zuk-eta-nik-nai-edo-nai-ez, "lingua navarrorum", "naparren izkuntza". euskera bait da!

Biarritz'ko Agilera'n, San Mames'en, Mendizorro-tza'n, Anoeta'n eta El Sadar'en, BAI EUSKERARI deadar egiñez millaka bildutako euskaldun-jendeak eman dizu gorrotorik gabe erantzun egokia. Eta nik ere, gorrotorik gabe, eman nai dizut nerean:

— Ez bait da egia ikastetxeetan euskera erakustea umeentzat kaltegarria izan daitekenik. Alderantziz, bi

izkuntza erabiltzeak, aurrak ttontoagoak ez baiña argi-agoak biurtzen ditu, pedagogiak egiztaturik daukan bezala.

Apezok amabi urtez gazteleraz eta latinez eziak izan gera; eta ori, ez zaigu kaltegarri gertatu, anitz eta anitz onuragarria baizik. Eta, latinez eta gazteleraz eta euskeraz eziak izan ba'giña, anitz eta anitz eta anitz ederra-agoak izanen ziren jasoko genituen emaitzak.

—Orixe bera erakusten digu edestiak: Euskaldunak, bere Lege Zarraren araura, ez bait dire, ez arraioa, inguruko jendeak baiño motelagoak izen.

Orduango aundikien oituren araura, izkuntza bikoitzean aziak izen ziren San Iñazio Loiolatarra ta Frantzisko Xabier'koa. Ta ez ziran garai artako beste Santuak baiño motzagoak atera. Bai ordea aundiagoak, bearbada.

—Euskaldunok baztar guztietan ano aitortu oi dugu "euskaldunak" gerala.

Gogoan daukat nola, erdiarohan, Rada'ko Rodrigo Goigotzai eta kronikalari ospetsuak Erroma'n Letran'go IV Kontzilio Ekumenikoian, aro artako beste izkera ugariz mintzatu ondorean, Kontziliokideei erronka au bota zien: "Orain, nere izkuntzaz, naparren izkuntzaz itzegin nai dizuet".

Xabier'ko Frantzisko'k, berriz, orduango itza erabiliz, "mi lengua es la bizcaína" idatzi zien Malabar'tik Erroma'ko jesuïtei: "Nere izkuntza, euskera da. Ni euskalduna naiz"!

LATIEGI'TAR BIXENTE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ
